

ENPRESAREN FUNTSEZKO ELKARTEAK:

1.Hornitzaileak:

-Gure hornitzaile nagusiak, **materialak birziklatzen dituzten enpresak** izango dira, haien bitartez eskuratuko ditugulako material textilak, horiei bizitza berri bat emanez eta lortzen horrela, material horiek ez xahutzeko.

-Gainera, oihal **produktuak** ekoizten dituzten enpresekin negoziatuko dugu haiekin akordioak eginez. Esate baterako, hurbil dauzkagun **“Textil Santanderina”** edota **“Linen estudio”** enpresekin prezio bat adostuz gero haien produkzioa bukatzean geratutako soberakinak erosiko dizkiegu.

-Bestetik, **garraio enpresa** baten beharra izango dugu gure produktuak bezeroei helarazteko. Gure enpresa Espainian salduko duenez, Espainian operatzen duen **Seur** garraio enpresarekin lan egingo dugu.

-Gure pelutxeei bereizkuntza emateko, **erreproduktoreak** erosiko ditugu eskalan **Alibaba**-n kostuak bermatzeko.

-Josteko makineria ere beharko dugu. Gure bazkideetako bat jostunaren senidea da, beraz, haren jakinduria eta esperientzia laguntzazkoa izango da. Haren negozioan **“Alfa” izeneko josteko makinak** erabiltzen ditu eta bere gomendioa horietakoak erostea da.

2- Arriskuen murrizteko elkarteak:

Zonaldeko jostailu denda txiki eta ertainekin egin beharko ditugu akordioak, hau da, stock-ean ditugun produktuen zati bat haiei salduko dizkiegu prezio murriztu batean eskalan eros ditzaten gure produktuak.

-Akordio hori jostailu denda batekin egingo ditugu, **Afede** enpresarekin. Honek heziketarako eta **“eco friendly”** diren jostailuak saltzen dituzte , beraz, gurekin sinergia bikaina izango dute.

3- Finantza-elkarteak:

“**Banco Sabadell**”-ekin akordio batera helduko gara: haiek guri maileguak, ordainketa kudeaketak eta renting zerbitzuak eskainiko dizkigute gure dirua haien kontu korronte batean harpidetu ondoren.

4-Funtsezko bazkideak:

NEREA: **Produktuen diseinuan** arituko da. Arte ederrak ikasi dituelako. Horretarako *informazioa* bilatu beharko du desagertzeko zorian dauden animaliei buruz (ezaugarriak, bizi-modua...).

URKO ETA MARKEL: **Eskulanean** arituko dira, Urkok jostailuak produzituko ditu (josten), haien familiaren negozioa textil erreparazioan oinarritzen zen, beraz, esperientzia daukate textilen eskulanean.

OIHANA: **Bezeroekin eta hornitzaileekin harremana** mantenduko du, erlazio publikoko gradua ikasi baitu.

ARKAITZ: **Panpinei ahotsa jarriko die**, audioa grabatuko du, bikoiztailea da eta.

5-Aliantzak:

WWF funtsezko elkarte bat izango da guretzat, beraiekin akordio batzuk egingo ditugu, haiek gure panpinak publizitatuko dizkigute, eta guk haien elkartearen nahia ere bai, aparte guk dirua emango diegu, pixka bat enpresa txikia garelako baina haien betebeharra lortzeko laguntza pixka bat emango diegu.